


Euskal AEko esportazio ez energetikoak %2,7 gehitu ziren 2016ko hirugarren hiruhilekoan, baina guztira %5,5 jaitsi

EBrekiko merkataritza gutxitu, halere %62,2 da

Euskal AEko ondasun ez energetikoen **esportazioak** %2,7 gehitu ziren 2016ko hirugarren hiruhilekoan, eta guztiak %5,5 jaitsi, Eustaten datuen arabera. Guztirakoa 5.119 milioi euro, iazko hiruhileko bereko 5.416 milioien aldean.

Produktu ez energetikoen **inportazioak** %2,0 jaitsi; guztira %14,4ko jaitsiera, inportazio energetikoen jaitsieragatik (%-42,5).



Saldo garbian, 1.448 milioiko **superabita**. Esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa, %139,4. Produktu energetikoak bazter utzita, merkataritza saldo **ez-energetikoak** 1.858 milioiko superabita; produktu hauen estaldura-tasa, %163,7.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2016, Hirugarren hiruhilekoa. Milaka eurotan

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Uztaila-Iraila			Uztaila-Iraila		
	2015	2016	Δ %	2015	2016	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	5.416.495	5.119.097	-5,5	4.290.720	3.671.463	-14,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	769.213	344.931	-55,2	1.313.583	754.885	-42,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.647.282	4.774.167	2,7	2.977.137	2.916.579	-2,0
ARABA / ÁLAVA						
GUZTIRA	1.350.362	1.561.056	15,6	761.185	860.040	13,0
PRODUKTU ENERGETIKOAK	158	76	-51,8	979	506	-48,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.350.204	1.560.980	15,6	760.206	859.534	13,1
BIZKAIA						
GUZTIRA	2.414.864	1.939.702	-19,7	2.634.975	2.036.518	-22,7
PRODUKTU ENERGETIKOAK	767.011	342.419	-55,4	1.311.851	753.590	-42,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.647.854	1.597.283	-3,1	1.323.124	1.282.928	-3,0
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.651.268	1.618.339	-2,0	894.560	774.905	-13,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	2.044	2.435	19,2	753	788	4,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.649.224	1.615.904	-2,0	893.807	774.117	-13,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Europar Batasuna helburu duten **esportazioak** %3,7 gutxitu, baina halere esportazio guztien %65,3 dira. Beheraka, Herbehereetara (%-30,5), Erresuma Batura (%-17,0), Portugalera (%-16,4) Frantziara (%-8,9), Italiara (%-4,3); goraka Belgikara (%16,2), Alemaniara (%7,0). EBtik kanpo beheraka AEBetara (%-28,3) eginiko esportazioak; goraka Txinara (%12,8) eta Mexikora (%7,8).

Europar Batasunetiko inportazioak %16,2 gutxitu dira, batez ere Erresuma Batutik, (%-78,9) 528 milioitik 112ra; Irlandatik (%-12,2), Frantziatik (%-9,0). Gehitutako inportazioak: Herbehereetatik (%18,5), Alemaniatik (%8,5), Portugaletik (%8,2), Italiatik (%4,2). Inportazioak gehitu Errusiatik (%56,4); jaitsi Mexikotik (%-21,7), Txinatik (%-20,2).


Muga-zergen sekzioen arabera, esportazioez, Garraio Materialaren gehikuntza (%11,8) nabarmendu behar; esportazio guztien laurdena. Jaitsi dira: Produktu mineralak (%-53,9), Metalak eta beren manufakturak (%-0,4). Material elektrikoa %-6,2; Plastikoa eta kautxua %-3,2. Inportazioetan: Produktu mineralak (%-39,9), Metalak eta beren manufakturak (%-14,1), Produktu kimikoak (%-10,5); Material elektrikoa (%+9,1), Garraio materiala %+7,8).

Arabaren esportazioak %15,6 gehitu; batez ere Garraio materialagatik (%34,8) esportazio produktu nagusia eta hiruhilekoen %53. Arabako inportazioak %13,0 gehitu: Material elektrikoa (%29,6), Garraio-materiala (%19,6).

Bizkaiko esportazioak %19,7 gutxitu; Produktu mineralengatik (%-54,4) eta Garraio-materialagatik (%-27,1). Bizkaiko inportazioak %22,7 gutxitu. Produktu mineralak (%-40,0), Metalak eta beren manufakturak (%-8,5), Material elektrikoa (%+7,9).

Gipuzkoako esportazioak %2,0 gutxitu. Material elektrikoa (%-6,3), Metalak eta beren manufakturak (%-3,1). Inportazioak %13,4 gutxitu. Metalak eta beren manufakturaetan (%-32,4); Material elektrikoan (%-9,0).

Euskal AEko zerbitzuen gainera koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE). Prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gainera datu-bankua